

ARTEA. Oilo, zaldi eta loreak izan ditu gai nagusiak, kolore biziez eta trazo lodiz eginak

Irene Laffitte margolari espresionista hil da, gaixotasun luze baten ostean

Donostia, Paris eta Ordizia izan zituen bizileku: haren pinturaren hiru garaiak markatuz

Erredakzioa | DONOSTIA

Bi urte egin ditu Irene Laffitte margolari donostiarrak larriki gaixo, baina duela bi aste egin zioten elkarriketa batean esan zuenez, hobeto zegoen, eta urte asko bizi nahi zuela esan zuen, ahal zuen neurrian margotzen jarraitzeko eta bizitzaz gozatzeko. Heriotza aurreko susperraldia izan zen hura, herenegun hil baitzen Donostian 71 urte zituela. Datorren asteartean egingo dira haren aldeko hileta elizkizunak, Donostiako San Vicente Elizan, 19:30ean.

Gaisorik egonda ere azken unera arte margotu zuen, berak maiz adierazten zuenez, zoriontsu baitzen trazoak marrazten zituen bitartean. Hain zuzen, azken obrak Donostiako Kai tabernan erakutsi ditu egunotan, eta horren aurretik Colchoneria tabernan, margotzea horren gustuko zuen Donostiako portutik gertu.

Oso gaztetatik heldu zion pinturari Laffittek. Madrilgo Arte Ederretako eskolan eta Donostiako Arte eta Ofizioen eskolan egin zituen ikasketak. 20 urte zituela hasi zen bere margoak erakusten beste pintore batzuen obren alboan, eta hasi bezain laster saritu zizkionten hainbat obra. 1959an Gipuzkoako Artista Berrien saria eskuratu zuen, eta horri esker ate asko zabaldu zitzaizkion margo munduan jarraitzeko.

Bat-bateko trazoak egitea gustatzen zitzaion, emozio karga handia ezarri bere koadroetan. Espresionista, kolore biziak eta pasta dentsoak bere ibilbide osoko ikur izan ditu. Kritikoek azpimarratu izan dute pasta lodien bitartez xehetasunez marrazteko zeukan gaitasuna eta ematen zuen errealismoa, baina batez ere zeukan jario per-



Irene Laffitte artista donostiarrak ohikoa zuen zaldiak marraztea. Horietako baten aurrean dago.

tsionala goraipatu izan dute. Oiloak, loreak eta zaldiak izan dira, bestalde, bere marrazteko gairik gustukoena. Argia isaltzea gustuko zuen, baina batez ere airea koadroetan nabaritzea zen lortu nahi izaten zuena.

Pariser bidai luzea

Hogeita hamar urterekin egin zuen lehen bakarkako erakusketa Madrilgo Arte Abril galerian, eta orduan ere bere kolorengatik kritika oso onak jaso zituen. Urte berean Pariser joan zen, eta hamaika urte egin zituen han. Erabakigarria izan da Frantziako hiriburuan bizitako garai hori bere obran, eta bigarren etapatzat hartu izan da. Hango kaleak, teilatuak eta giroa irudikatu zituen hamaika koadroetan, gris, zuri eta beltzetan. 1968ko maiatzean han

PARIS

Urte asko egin zituen Parisen, eta bere obran eragin handia izan zuen; ezagunak dira han kaleen eta teilatuen koadroak

egon zen, eta emozio handiarekin gogoratzen zuen gertaera historiko gertu-gertuko hura.

1963an jarri zuen lehen erakusketa Parisen, Galerie des Jeunes-en, eta han izandako arrakastari esker Estatu Batuetan hainbat erakusketa egiteko aukera izan zuen, New Yorken eta Detroiten. Baina Paris maite zuen, eta han aukerarik ez zitzaien falta. Urte haietan erakusketa asko egiteko eskaintza izan zuen.

Parisen bizi zela, 1970ean, Ordizian Areta baserria erosi zuen; bertan margotzeko estudioa jarri, eta 1974an etxera itzultzea erabaki zuen lehen senarra hil eta gero. Paisaia zabalak eta egunerokoak marraztu zituen Ordizian, eta han sortu ziren oilo serieak, beste batzuen artean.

1982an sute bat izan zuen etxean, eta estudioa suntsituta geratu zitzaion. Bere bizitzako unerik gogorrenetakoa bezala gogoratu izan du gertaera hura, baina 27 artistek erakusketa bat antolatu zuten Laffitteri laguntzeko, eta horri esker gertaera gainditu eta margotzeko ekin zion berriz ere. 1996an erakutsi zuten azken aldiz margolari donostiarraren ibilbide osokolana, Donostiako Kutxa erakustaretoan.

MUSIKA. Argitaratu berri diren Garbizuren obrekin hasiko da egitaraua

Hiru kontzertu hartuko ditu Abesbatza Asteak Donostian

Erredakzioa | DONOSTIA

Gipuzkoako hainbat taldek osatuko dute Abesbatza Asteak lehen kontzertua, hilaren 26an, Donostiako Artzai Onaren katedralean. Alegiko Txintzarrik, Lasarte-Oriako Albokak eta

Donostiako Santa Zeziliak Tomas Garbizuren obrak eskainiko dituzte, horien artean gGabor kantak, hain zuzen, Duo Seraphin argitaletxeak kaleratu berri dituen obrak.

Hurrengo egunean Gabon Kantuz Txiki haurrentzako egi-

taraua izango da Udaletxean, eta *Horra Mari* obra izango da entzungai. Enrike Azurzak konposatu du lana Jose Mari Iturralde idazleak sortutako ipuin baten gainean. Haurrak izango dira kantuan. Amaiera ekitaldia, berriz, 27an izango da Kaputxinoetan, eta Bachen *Eguberrietako Oratorioa* eskainiko dute Donostiako talde barrokoak eta Loinatz abesbatzak.

MUSIKA

Haendelen 'Mesias' interpretatuko dute herritarrek Bilbon

Aitor Encinas | BILBO

Iaz izandako emanaldi arrakastatsuen ondoren, aurten ere kutsu herrikoia duen *Mesias* entzuteko aukera izango da Bilboko Arriaga antzokian, abenduaren 27an eta 28an. Berrehun pertsona inguruk parte hartuko dute George Friedrich Haendel obran, horien artean 65 herritarrek izango dira, eta 50 ordu inguru egin dituzte entseguetan. 17 eta 70 urteko kantari amateurren artean asko iaz parte hartutakoak dira, eta aurten berriz ere kantatzea erabaki dute, antolatzaileen arabera, «esperientzia polita» izan delako. Euskal Herriko Unibertsitateko Abesbatza eta Areetako Ondarreta Koralarren laguntza izango dute okasioko abeslariak.

Musikari profesionalak ere asko izango dira. Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Bartzelonako Madrigal Abesbatza eta bakarkako abeslariak —Emma Kirby, Jordi Domenech, John Mark Ainsley eta David Wilson-Johnson—, ariko dira Juanjo Menak zuzendurik.

Aldaketa gutxi bigarren urtean

Juanjo Mena zuzendaria- ren berbetan, aldaketa gutxi izan dira aurten, *El Mesias* eskaintzeko orduan. «Bakarrik, bakarkako abeslarien partaidetza indartu nahi izan dugu Bilboko Orkestraren eta Ondarreta Abesbatzaren laguntzarekin», esan zuen zuzendariak, «baina herritarrek ere parte izango dira ikuskizunean, euren garrantzia izango dute». Ekimen honek musika klasikoa herritarren arte- ra zabaltzea du helburu, eta horretarako obra aproposa da Georg Friedrich Haendelen *Mesias*. Alemaniar konpositoreari ospea eman zion obrak pasarte sinpleak ditu, baina ahotsen nahasketa aberatsa du. Bestalde, oso ezaguna dela eta entzulearentzat obrarik aproposenetakoa dela esan zuen Juanjo Mena zuzendariak.

